

JABIER'TAR FRANTZISKO SANTUAREN
BIZITZATXOA

LIZARAGA'TAR JOAQUIN
Elkano'ko Apaiz zanak egiña



IRUNA'N
Aita Kaputxino'en Irarkolan.
1922

16.8.99

Concejo de la
Catedral de Pamplona



IRATXE

LIBRERIA
ANTICUARIA

Monasterio Iratxe, 16
Pamplona/Iruña



JABIER'TAR FRATZISKO SANTUAREN
BIZITZATXOA

LIZARAGA'TAR JOAQUIN

Elkano'ko Apaiz zanak egña

ACM

IRUNA N

Aita Kaputxino'e iarrakolan,

1923

Reg.	108429
Merc	15361
Fond	108429
Clas	FC-10-02
N. Or.	
Centro	3
Pest	
Pres	193902



Elizaren baimenarekin

AUREKO ITZAK



AURTEN betetzen dalako irugafen eunurtea Xabiertar Frantzisko deuna Santuen artean Elizak jafirik, Nafarroako Aldundi (Diputación) goragaiak erabaki txalogafi bat baño geiago artu ditu gure Santu aundi au Napar guzien artean ezagurazteko.

Onengatixe erabaki du bere bizitzatxo au azaltzea. Egues ibarreko, Elcano izena duan efiko sema ta bereartako Apez izan zan Lizafaga'tar Joakin jauna zanak egiña da.

1748'gafen urtean jaioa zan jaun ori eta laro-gei ta sei urte zituan garaiean il zan irurogei urtez bere efiko Apez izan ondoan.

Nafarroan geienik euskeraz idatzi edo eskribitu duan Apeza.

Irakurgai asko utzi zuan bere eskuz ezañirik, baño oso gutxik ikusi dute argia.

Urteko igandetako Platiak edo Itzaldia, argitaratu ziran Donostia'n 1846'ean.

Bonaparte'tar Luis Luziano'k argitaratu zituan Londres'en *S. Juanen Evangelioa ta Jesus,*

Copla gisa batzuk celebratus Jesus Jaunaren amoreac ta fervoreac.

Baño oraindik bere irakurgai asko ta asko aitzalean arkitzen da. Auetako bat da, *Santu zentzitzen bicitzac euskeraz laburquiro paratuac* Azena daramana.

Napafo'ko Aldundi etxearen dago ori. Ta ortixe artu dugu itzez-itz orain irakurtzeko zure eskuestan jartzera goazkitzun au.

Egilearen egunetan euskera asko galtzen ari zañan efi artan eta bere ingurukoetan eta nabari du. Erdal itz asko sartzen ditu ta esanera ere aski erdal usaiduna du frankotan. Baño ezertxo ere aldatu gabe, ez itzeten, ezta ere idazkeran edo eskribitzeko moduan, egileak dakañen bezalaxe ematen dizugu.

Irakufi geldi-geldi zuen etxetan, euskaldun onak, Santu euskaldun onen bizitza afigafia ta marrari audiak. Zail-xamaf irudi badu ere lenengo aldiz aditzeko, ez utzi bela eskuistik. Ikusi zazu guzia ta azkenerako efaz adituko diozu ta ezdezu atsegina txikia artuko.

Kalparégi.

ADITZEKO ITZ ZALENAK

Cio, irakufi zion—ce, irakufi zen—zue, irakufi zuen citue, irakufi zituen—cequio, irakufi zitzaoen—cire, irakufi ziren—andigura, irakufi audi ura—cordelgaiec, irakufi cordel aiek—gaugartan, irakufi gau artan—in, irakufi egin.



San Francisco Xavier

Sandubat landia, gure lecuquidea, Nafarrraterra, Nafarroaren honra, gloria, ta Sendagaila da San Francisco Xavier. Jaiotze Xaviergeo Casteluan gendaquinobletic, milla laureun ta lauroguei ta amazazpigarren urtean. Asiric ongui, ta icasi-ric lembicico letrac, bializute Parisa, non icasi-zituen arte goragocoac, ta Cathedratico eguinic eracutzicitud. Allegatuze an estudiatzera San Ignacio Loiola Jangoicoaren providencias, ta bil-latu naies lagun, fundatzeco Jesusen Compañia-co errelijonea, ta irabazteco Arimac Ceruraco, eguiuncequio adisquide. Ze San Francisco animoso, goapo, garboso, ta goranaia, ta ala bizarroqui portatzerenza gucietan. Zué arrebabat Monja descalza Gandian Sandaren fama zuena. Oni es-crivitzéncio Aitác, nola bere anaia Franciscoc al cinamentu asco ecustenzuen bere estudioetan Parisen, baña gastu anitz ematenziola. Sandac erres-pondatucio Aitarri, etzeiela errepara gastatzean bere anaia Franciscorequi, ezi Jangoicoac zeuca-

Ia destinaturic Indietaco Apostolu, ta escogitua eramateco Jesu Christoren Evangelio Sandua gente gaietara.

Ortaco San Ignacioc amoltsuqui maiz consejatzencio despeitzea munduko Vanidededa, ta osoquiro ematea zen gucia Jaungoicoari, errepeditus Evangelioco egua andigura, *quid prodest homini etc. Francisco Francisco, zer prochu durbatec, naiz irabaci mundu gucia, galtzenbarrimbadu bere arima?*.. Itzebequi, exercicio espiitualeequi arguituric Jangoicoaren graciaz, ta e rrrendituric biotz andigura, emanze beingoas beticos Jaungoicoari. Asize garaitzen passioneac, ta castigatzen gorputza: eta ceren indarr andias, laster eta salto eguiteas izanzen Sendagalla, penitenciataco lotucitue fuertequi azpiac eta besoac cordel batzuequi, passatus embarazu ta oñazeasco, emangabe aditzera inori. Ama Virgiliaren Asuncione egunean eguinik lagunequi Voto Jerusalengo peregrinacioaren, bere demboran atracire Parisdic Veneciara joateco ofies pobre-guisa neguaren ecaitz, ta heregeen ertean. Videgartan ibiltzearequi sarturic cordel gaiec araguia barra, aurquituze Sandua ezin pausoric emanestear izanzue aguertu causa lagunei, ta guelditu lembicico errian.

Deituric Barbera, ta aguerturic llagac, ta icusiric cordelac ondaturic araguan, arrituric alaco

penitencia-guisas gueldituze, etzela treve botatzeria escuac, bearzela ebaqui anitz idiquitzeco, ta atratzeco araguetaic cordelgaic. Guciak penas beteric, etzelaic erremedioric, ez paze Jangoicoaganic, egoncire oracioan gaugartan; eta aditutice Jangoico onac, ceren ezi biramonean aurquituzire cordelac zaticaturic, llagac sendatutric, ta Sandua ain sendo, ezi bereala paratuz videan, gozoso guciac ezin aspertus emanestor gatic esquerr milla Jaungoicoari?

Venecian empleatzenze assistitzen heriei hospitalean, egunes bearrziren zervitzu guciac ain noila Christo berari. Berceen ertean ze bat llagas, materias usai gaichstos gogaitz ematencionia. Sanduac garaitzeco, cer eginzue? Beiratus pobregura, nola balitz Cristo bera, applicatuzue bere agoa llagara, chupatucio materia zeriona; eta accionegonen casos eguincio Jangoicoac gracia, ez sensitzeas andic alcina gogaitzic batere alaco laneitan, baicit devocio ta gusto.

Erroman disputatuzue Aitasanduaren presencian, ta beraren bendicioarequi itzuliric, ta Ordenaturic Sacerdote, ta prestaturic asco demboras celebratuzue meza lembicicoa Vincencian: ta asize predicatzen Evangelioa, eracusten doctrina Christianoa, aditzen Confesioac, ta convertitzen arimac, nola balitz Cerutic etorria. Demboragarrian Portugalco Erregue D. Juan irugarrenac es-

caturic sei compañiaocoetaic bialtzeco bere indietara: bida señalaturic ortaco, baña ebetaic bat herituri, onen partes señalatuze San Francisco, yá zegona Jangoicoas. Bereala atraze animoso alegre bere Breviaroarequi sollic, nola balidocie erribatetic bercera urbil. Emancio lendanic orrenseñale cembait Jangoicoac bein mostratucio be-re borondatea zela, zervitzazaion Indietan, ta balema becala indiobat bere soñean ezin jasos: berce bein adiaracicio passatu bearzuen trabajuqueta andia: baña naiz bai, alaere Jangoicoaren amores asize oyus, yago, Jauna, yago, yago.

Videan ya asize Jangoicoa mostratzen, zela Francisco bere maite Escogitura, obratus beraren medios prodigio miragarriac, eta Sanduac ere bai Jangoicoas sollic caso itenzuala, ceren ezi passatucir urbil bere errira, etzué nai izan ayestu, icus tera, ez bere Ama ere, vicizena an.

Portugala allegaturic, bereala hospitalean zé bere ostatua. Berealá asize barratzen Santidadearen achona; ta dembora gutiren barnean pro-gatzen provechu andia Erregeren Cortean. Or-gatic ya Erreguec ez lúzque nai utzi andic; baña S. Ignacioren consejus artuzué ontzat guelditzea an laguna, ta uztea S. Francisco Indietara. Ortaco logratucio Aita Sanduaganic Nuncio Apostolicoaren bula.

Viage lucegartan emanzue virtute ta santidade

guciaren exemplu, gucien zervitzari, guciei com-sejatzen, lagun eguiten, asistitzen sano ta heri ta iltzenzirenei: de manera ezi guciec admiratzen, ta estimatzenzute Sandu becala. Amirur ilabeteén buruan elegaturic Goan, lembicico eguinzuena ze presentatzea an Obispo zenari be-re titulo zuena Aita Sanduaganic, etzuela najusatu, baicic noiz ta nola naizuen Obispoac, ta escatzenciola bendeicioa. Admiraturic elaco humiltasunas arrec, eta ezaunduric zela Jangoicoaren gizon sandua, esancio usazezala naizuen beca-la. Asize obratus caridadea hospitaleetan beti bezala. Vicicire an christaoac eta infielac nasteca; eta ezaunduric christioen gaichsto izatea dela es-torvu andia christiatzeco infielac, asize predica-tzen ayei goizetan ta arratsaldetan espíritu an-diarequi; ta ortas landara eracusten doctrina chris-tiano aurrei ta ignorateei humil arresti miraga-rriro. Icusteco ze guizón sandugura, Aita Sanduaren Legado izanic, ibiltzea carricas Carrica soñatutus chinchabat, eta erranes oyus, *O christiano fie-lac, Jesu Christoren adisqueideac biali zeuren humeac ta echeacoac doctrina christianora otoi Jangoicoaren amoreagatic.*

Pregoa berrigan aditus acuditzenzute gende-ec montonta, ta aditzenzute sanduaren itza ala nola Jangoico beraren itza: eta Sandua acomoda-tzence aien itzcuntzara entendarazteagatik. Si-

nestadaquien baño yagoda atrazuen frutua, era cutsis ala doctrina; ta doctrinaco oracioac cire ango cantac videetan, campoetan, lecu gucietan: borz ilabetez ala logratuzue berritzea costumbres ciudade andigura, ta ingurucoac, ezpaizeizque ezaun, lenecoac ziren ya. Confessatzera eldu zequin gendetzearen amarrgarren Zatia ere etzuque aditu, naiz ortan egonic gau ta egun al gucian.

Andic joance Provincias Provincia, Erreinus erreinu, eraiquis Jangoicoaren itza, ta logratus zeruraco eraicio abasto. Principioan naiz ez aimberce lograturic persona larrietaic, baña yago e z milla aur ilcire bataiaturic, ceñei encomendatzetze ze Sandua, Cerura zirenei bezala, logratzeco Jangoicoa ganic gracia, convertitzeco ayen buratsoac; eta ziō, aurraiengatic sollic ere placer zuela aimberce milla legoa vide passatuas. Guero asicire convertitzen larriac ere, guizonquiac, emaztequiac, aberatsac, pobrec, jaquintsuac, erregueac berac. Ogueitamar milla legoa vide passatu zuela diote bere misioneetan: cembat milla ta millon arima convertitu zituen; norc daqui? Bazire egunac, noiz bataiatsuaren utses acituric ezin goratu zuquen besoa ta ezin atra agotic itzac. Bitarteo zemba trabaju, cembat viciaren peligro, cembat trance gogorr pasatuzuen, norc conta? Baña Jangoicoai zion amore andigarrec gucia gutti iduriaraz-

tenzio, ta despreciarazten descansua, osasuna, ta vicia ere, ceren ezi beraren ansia ze acabatzea Jangoicoaren zervitzutan. *Enetako vicitza da Cristo*, cio S. Pablorequi, *ta iltzea ganancia*. Baña Jaunac ere cuidatzenzue bere zervitzuko onetsias, guardatzenzue bere escuas betetzenzue consolacions ta gracias, eta beraren medios obratzencitue Apostoluen demboretako grodigio ta milagroetaic abasto; mintzaracis anitz mintzo-guisa diferente; batean mintzatus entendaracis guciei nori berean, botatus demonioac, calmatus itsasoac, detenitus iruzquia ceruan, jautzi aracis andic su, Viztus ilac orciondoan ere, sendatus herimota guciac eta ori ez bere personas solamente, baicic bialis aurrac bere palo, edo erosario, edo alaco gauzarenbatequi heriengana, ta an erreztuts ayec cerbait oracio.

Amarr urte ta cembait illabete iraunduzué In-diagaietan lan ta lan, atzenduric descansuas, irabacinaies mundu gucia Jesu Christorén. Azquenerat Japongo erreinuan erranciote ango jaquintsuac, ayen erreligionea etorrizela Chinatic, eta etzutela artuco Jesu Christoren erreligionea, ezpazute artzen Chinan. Sartucequio gogoran pssatzea Chinara, naiz zegon erchiric erreinugura campocoendaco viciaren penarequi. Ingeniatuzué nola zeiquen joan: estorvaturic origizonen mincha-gaichstoqui: ingeniatuzueberce guisas joatea, naiz

viciaren arridiscoan: elegaturic sanchoango Isla-
ra, nondic Chinara den ogeitamar lecoa; emendic
ustezué passatu; baña etzeizan posible; ta Jangoicoac admitu cio deseoa, naiz ezin cumpli. An
emancio sucarr edo calenturabatec; ezin senda-
tuzé ongi: eta ezaunduric naizuela Jangoicoac
eraman cerura, gucia itzulizé deseateza Jangoico-
coaren icustea errevelatucequió nola ilbearzen,
ta erretiraturic echolabatean an oyanean, desam-
paraturic mihduaganic, baña zeruaganic ongi
amparaturic consolacio ta favore andiequi, Jesus
ta Mariaren besoetan entregatuzue espiritu an-
digura igozeco gloriara errecibitzena corona. 2
Dec. ann. 1552.

Guelditu zen gorputz sandua edertasun berri-
batequi vici idurizuela mostratus arimaren gloria
ta causatus devocio, erreverencia, ta admiracio
beiratzeas nola honratzen zuen Jangoicoac arima
andigarren concha-izana. Portuan zeudenec ait-
uric berria, lasterr eguin zurte echolagartara, eta
dovocesco negarrequi errevestituric ornamenti
sacerdotaleés paratuzute caja batean eramannaies
bereqni itsasoncian, ta ortaco inguratuzute calcina
vici cantidades consumizeicen araguia joan
bearzuteneko. Andic bi illabete terdi ya joan bear-
zutelaic, bializu'e icustera, otezeuden ezurr san-
duac disposicioan passatzeo oncira: eta aurqui-
tuzute gorputz gucia nola len bere araguiequi ba-


tere aldatugabe ain fresco momente, ceruco achon
gozobat errespiratzuenela.

Arrituric Jangoicoaren milagroartas eraman-
zute itsasoncira, ta andic Malacárd, non erreci-
bituric processio solemnebatequi aguertuze ain
oso fresco fragrante oroa nola ilzen egunean,
obratius bateo Jangoicoac arren medios asco favo-
re miragarri. An atraric cajac orcidute lurr-bar-
nean Jangoicoaren permisios, baña urbilen Agus-
tuan devocios icusi naies Goatik joanciren Erre-
ligiosoe acurquituzute ain oso, ta odola zeriola, ta
fraganciabat Ceruoca bezala. Paratuzute berriz
caja batean eramateco Goara, non depositatuzute
gorputz sandua amasei labeteen buruan ain oso
fresco fragrante beti nota l-imbicico egunean. De-
claratus Jangoicoac beraren santidadea onequi ta
berce infiniciobat milagroequi. Canonizatzue
Aita Sandu Gregorio XV'ac 1622 urtean.

S. Theresa, S. Felipe Neri, S. Ignacio, ta S.
Isidro Necazariarequi bateo.

Ezin contaala dire San Francisco Xavieren me-
dios Jangoicoac eguintuen milagroac, il baño len
ta il ondoan: baña gure doctrina, exemplu, ta pro-
vechutáco, obe da contatzea prendac, virtuteac,
ta obra onac.

Norc ordea aipatu ere arima Sandugarrenak?
Cembait bacoch aipa zagu gueuren oneraco.
Nondic asiko gara? Humilitasina da nola barnatzea



lurra, plantatzeko fedearren cimendua, onen gañean fabricatzeko santidadea. Da humiltasuna virtute bat, ceñe qui gizonac ezaunduric eguiaz bere burua baitauca deustaco bergeganik, desestimatzen dela siñes, ta batere ez presumitzen. Nola on gucia baitatorr Jangoicoaganic izatecos gauza onic guizona baitan, da preciso asentadezan humildadearen cimendugoi, ezperen deus onic eztio fiatuko Jangoicoac, ceren ezi subervo presumtuei dióte oposicio, | baña humillei ematendiote gracia.

Eta ala ezta, ta eztaique izan ere guizone onic ta provechuscoric humil eztenic, baicic ere cembatenas sanduago, humillago, ezi obraren ariora bearda beti cimendua, ezperen ezta iraupetsu. Sandu andia ze San Francisco Xavier, ta aguitz humila. Bañan cein humila? Humillatzené (gucien pean, naiz izanic Aita Sanduaren Legado, pobreei, herieei, beartsu, guciei zervitzatzen edo cein oficiotan. San Ignaciori escrivitzeco ta arren cartac leitzeco, paratzen zé belaunico; Beñere etzué aguertu potestade zuena 'Aita Sanduagánic, baicic bein presentatzeco Obispoari obediencia, ta berce bein lotsatzeco Atalacaco Gobernaria estorvatzen zuena Chinaraco viagea. Bere aliamentu escasa limosnas ematen ciotena: bere tresnac zarr zarrataturic comunquiro. Ezin zezáquete jaintciaraci berririk. Bein etzequiela

paratu cione sotana berribat; icusizelaic vestitúric artaz etzé baratu aldatuarteo bere sotana zarrá. Bada ceimbat burla ta escarnio sufritu zué gozoro?

Japongo Erreinu: a joateco, alocatu zé Correoguisa zaldunbatequi; ta Sandua cargaturic meza errateco ornamentuequi ta zaldungarrén maleta batequi soñean zoeie alcinean oñes, ta aldartez lasterca ladronen casos elurr eta loietan! Corte-gartan izanic gerra-dembora, ezin logratu zue, baizic desprecio ta escarnio, tiratzen ziotela aza ta maiza cozcorres; eta ala itzuli zé sereno irabaci zuela beretaco Sanduen tesoroa, baitire tramentu gaichstoac! Becatari ta gaichstoequi ere etze asarratzen gogortissoc, baicic humil-humila errogatus, consejatus, adisquide amoltsu mostratus, iduribai zue soldadoequi soldado, guciequi adisquide, irabacinaies guciac, niori desplacer egin gabe. Ala zé bere errana, ni neurearequi atratzeco, sartzen naiz ayenarequi. Ala encargatzen cione lagunei beti usatzea modu ona ta humila. Onequi cemba conversione miragarri logratu zuen, norc conta? Eta yago dena, mante-nitzea lecugaietan galdugabe, ta an iten-zituen onquiac, escrivitzen zue zirela bere anaia erreligiosoen oracios ta merecimentus: contra berriz logratzen etzen gucia zió zela bere culpa ta beca-tuengatic. Milagro iten zituenetan admiratzen ta

laudatzen zue Jaungoicoaren ona, egiteas alako indignoaren medios, ezi gaichstoen gaichstoena contatzen ze bera, infinito zor-ziona.

Ezaumentu humilgoni darraio eguitea oracio Jaungoicoari ta escatzea pobre guisa fede ta confianza onarequi. Lecu gucietan dagon bezala Jangoicoaren Magestadea, gucietan acuditzen zue beregana, nola hume pobre batec Aita onagana. Etzeique egon temploan nai adiña: baña bere pechoa consagratu zue templo-guisa. An biltzen zue bere gogoa iteco ta bear gucietan; escatzen zio sinquiero an; eta Jaun onac an arquitzen, ta eracusten ció bere borondatea, ematencio gracia bearrorduan.

Ta ala beti zego bere Jangoicoarequi, eta etzeique atzen. Lotan ere asco aldis aditzen zute suspiratzen ta erraten jo nere Jaungoico Jauna! jo nere Jesus ona! o nere arimaren amoreal! etc. Zén bere Aingueru guardiacoaren aguitz devoto, ta San Miguelen, ta berce aingueruen. Bada Ama Virgíñari zion amorea eztaique pondera, nola hume onac ama onari, eta vician bezala iltzeracoan progatuzue Ama divinagonen amparoa. Baña Jesus onaren pasio ta eriotzean zuen continoco meditacioa, ta erraten zue direla obec Jangoicoac digun amorearen prenda seguro taclaroenac. Beti zerama berequi Cristo crucificatauren imagina, cein eroriric ustecabean bein

itsasoan, etzén baratu otoi ta otoi, negar ta negar, ecarricion arteo caramarro batec ontzira. Sacramento aldarecoan ordea nola erretzen ta urtzen zén amorez; norc explica? Meza erratean zue bere gloria-guisa; principalquiro sagrasgueiros an zire bere amoresco suac ta negar gozoac betetzen cirela devocios ta admiracios assistitzen zutenac. Comecatzera ematen zuen belaunico erreverenciaren utses, ta postura óntan icusten zute cebait aldiz goraturic airean. Eta bere iteco anitz ta andien ertean zeiquen gucian erretilatzen ze Sacramentuaren presencian temploan nola txita olloaren egalpean. Gañeracoan etzuelaic demboraic libre, loari quentzencio gauaz, ta batzutan belaunico ta auspesca, berce batzutan paraturic beguiac Ceruan elevatzen zé gogoa ta gorputza ere airean gora: eta icusize arroturic bi escus sotana pecho gañetic, clamatzan, asqui da, Jauna, asqui da, ezin soportatus amorearen sua, ta consolacio divinoaren erauntsia. Ascotan icusten zute suturic aurpegua istarguitzen, etzirela treve beiratzera aurquez-aurque. Baña nonnai ta noiz nai zeucan presente bere Jauna adítzen, ta érrespondatzen, argitzen, animatzen, ta guidatzen zuela nola bearzen.

Andic zue arimo andigura, sartzeko trabaju ta arrichisco andienetan, ez lotsatzeko deustas ere, ez eriotzeas, ez venenoies, ez ezpata, saeta, ar-

ma gucies, ez mundu gucias ere. Bein etorriric christiano berrien contra Badagaen tropa andi bat armaturic, paratu ze bacarric bere gurucearequi alcinean ta corage andiarequin errepreshenditus guibelaracitutte guciac. Ascotan nai zutelaic adisquidec gueldiaraci etzeien joan Atoroen islara, ta lecutara, non baseicien guisa ziren gendeac, iltzen ta jaten zutenac guizonac, Sandua batere turbatu gabe admiratzen zen ayen fede gutias Jaungoicoagan: *Ala escritivitzenue bere erreligiosoi, nic Jangoicoari sollic diot beldurr, ceñen escupean baitaude gauza guziac, ta batec ere ezpaitetxe que gaizquiric egunin, nai espadu berac.* Baña cerc zuque lotsatu Sandua antsiatzen zegona padecitunaièz beti ta il naiez Jaungoicoagatic? Eriotcen erdian guardatzen zuen Jaungoicoac.

Andic ere, diot oraciotic zue argui divinogura, icusteco ez solamente urrutico ta gueroco gauzac, baita ere biotz-barnecoac. Cembat aldis anunciatu citue aguituco ciren onac eta gaitzac? Malakan atraraci citue itsasonci guti batzuc etsaien iruoguei oncien atzean; eta guciac zeudelaic urriguituric utzias joatera gutigaiet ya galdutako zeuzquitela, Sanduac acarr inciote fede gutias, eta pulpitotic pintatu ciote batalla eman zutena, nola beguis icusbalez, nola irabazi zuten Victoria, cembat ontci ondatu, cembat arrapatu zuten, eta noiz allegatuco ziren triunfante.

Guzia aguitu bezala. Bein bearri izan zue diru
pusca bat erremediatzeco doncella bat: joance-
bere adisquide baten billa, escatzeko: deitzen ze
Pedro Vello; cego divertitzen jocuan lagune-
qui, ellegatucelaic Sandua: onec eguiñcio peti-
cioa humil; arc errancion chanzas, garai onetan
eldu da, Aita, diru esque, orain bearrean gara-
laic emen jocatzeko. Baña berla eman zion es-
critorioko guiltza, bidocie Jangoicoarequi; arbez
nai duena. Joance: artuzue irureun ducat; ta itzu-
li cion guiltza. Arc galde eguiñcio amoltsu,
jeta cembat artu dida? Sanduak, irur-eun ducat.
Velloc orduan, oh Aita erran cion, chur ibilli da;
nic uste nuen an ziren ogueita amarr milla ducate-
taic erdia beintzat artuko zuela.

Sanduac ezaundurik, sines gogotic ziola, bildu-
ric bere baitan guticho bat, bereala esquer milla
emanik seguratu cio, etziola faltatuco beiñere
Jaungoicoac, ta il baño len ta len jaquinen zuela
noiz bearcen il. Andic alcina eman ze gucia Jaun-
goicoari, egunes limosna ta obra on anitz. Asco
urte pasaturic, azquenaren principioan ezaundu
zuen sefiala eman ciona: asi ze prestatzen yago,
ta despeitzen bereadisqueideac berce munduraño;
ta icusten zutelaic sano ta sendo, uste zuten sim-
pletu ote zen; baña arc segui bere teman. Az-
quen eguneko preventu zuen bere il aria; joance
acompañaturic elizara: an illen lecuan etzan ze-

estaliric luto batequi: cantaturic defuntoen Ofi-
cioa ta meza, erran ondoan «requiescant in pace»
quenduric gañeko lutogura, arquitu zuten illic.

Jaungoico berac arguitus, bazequie Sanduac In-
dian asco, gauza aguitzen ciranac EspaÑean. Bein
congojaturic botaze agos bera goatze baten ga-
ñean, egonce ala nola sentidoic gabe; ta guero
chutituric erranzun, Jaungoicoac barca dezazula,
urlia.

Guero jaquinze, bitartean zegola personagura
eguisten cembait oficio Compañaren contra. Bio-
tzac ere icusten zitue.

Mercatari aberats batec deitzen zenac Juan
Duro, confesaturic Sanduarequi, escatu cion otoi
ta otoi, arzezala bere Compañian, nai zuela eman
zuen guzia pobreei ta segitu bera. Nequez con-
sentitu zuen Sanduac, beldurr zelaric aren incons-
tancias. Asize ura errepertitzen, baña urriquitu-
ric bildu citue obenchoac, ta paratu cituen oncian
ichsil-ichila embarcatzecko. Deitu uen Sanduac:
joan cequio ura disimulacio guciarequi, ustez e-
tzequier intencio zuena. Sanduac arturic apart
erran cion serio, becatu induzu, Juan, becatu in-
duzu. Arrituric ura botacequio oñetara, ta con-
fesatu cion, bécatu indut, Aita, becatu indut. Ta
emendaturic cumplituzuem lenbiziko propositoa,
guelditus Sanduren Compañian. Lagun arturic au,
ceren artu zuen cembait limosna licenciaric gabe

Sanduaren bearretaco, esterratu zuen isla batea cenbait eguntaco. An izan zuen visione bat Jaungoicoaganic. Alchatu nai zion Sanduari: baña Sanduac gucia declaratucion, nola ta cergisas izan zen.

Berce bat atera zuen estado gaichstotic; eta mantenezco gracian, aconsejatu cion confesatza maiz, ta itzultzea andic onat. Gucia ofrexitu ta ez cumplitu. Aurquitu zuen Sanduac gue-ro berce lecu batean; eta guizon ori joan cequio, arresti, alegre besartatzera. Sanduac severo, nic besarcatu zu? engaña tu nauzalaic zeure itza faltatus etzarelaic confesatu irur urtegau betan? Ez etzaitut iduquico adisquidetaco, ezpazara confesatzen. Ezaunduzuen arc Jaungoicoa zegola Sanduaren biotzean: cofesatzen, ta emendatzen. Bercebati galdeguincion, nola zegon, Arc, ongi nago Jaungoicoai esquer. Sanduac berla, gorputzean ongui, baña animan gaizqui: Zegon ura intencioequi egiteco gaizquibat niore errangabe; baña icusiric, Sanduari erranciola Jangoicoac, confesatu zen berarequi, ta emendatu. Bercebati consejatzen zué Sanduac apartazeila emaztequien comunicaciotic: Ura etzen emendatzen: Sanduac ilbear zen vezperan beiratzen ziola triste ta niggarti, erranció lastimas, ay zutas, ay zutas! Andic guti zibilelaic gaistaquerian ilzuté.

Jangoicoaren comunicaciotic apegatu ere zequio

Santuoni gorputz ta animaren castidade, ta garbitasun miragarrigura, ceñen testimonio, eman zuen Jaungoicoac berac, mantenitus ilondoan ere gorputza ain oso argi ta garbi ederr miragarriro. Indira baño len ere portugalen admiratzen ziren Sanduaren ta bere lagunen castidadearen achon onas, fama onas. Orgatic bein ango erreguec bialiric Espanara bere alaba Erreinataco, ta onen compañian bi Jesuita, ebatatic bati erronomenció erre-guec, egua da errandidatena, damariela Jesuitac belarbat duena virtute, conservatzeko castidadea? (Rodriguez. 1. 3. ta 4. c. 9.) Errespondatu zion irrlicos, egua errandiote orren Majestateai. Cer belar da? Jangoicoaren beldurtasuna da gure belarr preciosoa eguitenduena milagroi. Nolako Jangoicoaren milagroa eztá, ibilis Sandugau India-gaietan, asco gende animale-guisa viciciren artean ainberce demboras mantenitza ain garbi, ederr, mellaric gabe, nola Sanduari conventu batean? Cenbat indarr, ingenio ta astucia etzué usatu etsaiac, albazuque mancharazi Sandua? Baña etzuque infernu guiac, ceren guardatzen zuen ceruac. Idatzarriric ezin, ta acometituzué bein loan ametsetan: baña loan ere, ametsetan ere Sanduac eguin zur ainsturce erresistencia ezi idatzarrizé odola zeriola agotic eta sudurretaic indarr eguinaren utses, garaitzeco.

Caridadea da virtute gucien erreguiña, zaña

ta vicitza: gueiac ezin aipa ere, onen gain erragun cerbait. Da caridadea amatzea Jangoicoa gracién gañetic, ta proximoa geuroc bezala Jangoicoagatik. Zaimbat baña bi arrama, bat Jangoicoaren alde, bercea proximoen alde, amatus Jangoicoa beragatic, ta proximoa Jangoicoagatic. Amatzue ala eguiaz San Francisco Xavierec osoqui *affectoas, effectoas, eta perfectoas.* Lenic *affectoas;* empleatus bere afficione gucia Jangoicoagan biotza amorosturic bere Majestadeas; memoria, oroitus atcendugabe; entendamentua, pensatus contino; borondatea, nai izanes soilic nai-zuena Jangoicoac: arima gucia embargaturic ta ondaturic Jangoicoagan, nola ezpalitz berce gauzaric munduan, Jangoicoa ezi. *Effectoas,* obratus ta trabajatus anitz ta algucia Jangoicoaren gustotan principalqui salvatzen bere ta berceren arima baita gauza aguítz quadratzen zaiona Jangoicoai. *Perfectoas,* padecitus anitz trabaju Jangoicoaren amores, ta padecitunaies yago ta yago ta acabatu naies Martir fede christianoagatic. Baña certan ezaundaiquen obequienic ya amátzenden Jangoicoa, da amatzean proximoac Jangoicoagatic; eta nola arimac baitire ain precioso, eri eben salvatzeagatic ilbaize Jangoico-Gizona, ayen salvatzeco trabajatzean progatzen da caridadearen fiña. Cerc eramanzué Indietaras sandugau? Ezurre, cillarr ta alacoen codiciac, baicic

arimen amoreac. Cere paracicio aimberce trabajo, pena ta peligro, bacic arimen irabacinaiac! Diamante guiac baño geyagonaizué arima bat sollic ere, eta ala ez solamente anitzengatic, baita bagatentik ere artzenzitue viaje luceec, ta neque pena erruac. Especialqui arima galduen irabazteco zé beraren gose ta egaria.

Navegatus itsasoan bein, zorionez onci berean becatari bat choil urratua: Sanduac amoitsugui naizué confesaraci; etzué logratu orduan, ta utzi-zuégueldi. Ellegatu cirelaic leorrera, convidatu zué paseatzeria berequi; ta gutibana conversacioaneramanic oyانباتر، biac sollic zendulaic, derepente sanduac quenduric habitua bizcarrethic, asizé disciplinatzen ain erru, ezi saltatzen ze odola berceagana; ura cegó arrituric, eta guciago, erranciolaic arrengatic artzenzuela penitencia gura, palacatzeagatic Jangoicoa etzezan descarga bere ira arrengañean. Alqueturic ura ta penaturic botazequio oñetara, utsezala disciplina Confesatuzé negarres, egui zué proposito emendantzeco, ta emendatu ze. Onequi itzulizé content Sandua.

Berce bein enbarcaturic Vigorrailaren semea oncietan, jaquin zué Sanduac zoeiela an soldado bat choil conciencia gabea vicizena nola ezpaliz Jangoicoric. Sandua arren on naies berce precisioric gabe sartuzé onci berean: ustezuelaic guciec

Vigoraiac escatubideciola joatea bere semearen amparotako. Sanduac, usatu bezala, artuzué fratu soldadogarreQui, aldacadanbeti, naiz jocatzena, disimulatus arren lazoqueriac, ta ala mostratzene-quió adisquide. Ya satisfaccio arturic, portura allegatuondoan, alaco maneran mintzatució ezi eguin zué confesio general bat, ta contricio fiña-reQui: Sanduac emancio penitencia leve bat; arrituric ura ain penitencia leveas aimberceco becatuen gatic, Sanduac ció, nic emanen diot Jangoicoari satisfaccio gañeracoas; eta berladanic asize disciplinatzen lotsagarriro bere burua. Bercea negar ta negar ya berac culpa, ta Sanduac pagatu bearzuen pena. Ondorean errancio Sanduac, ez-tut nai zureganic, baicic emendatzea; eta organic sollic artudut viagegau, ta itzultzen naiz content lograturas. Orduan berriro emancio negarrari berceac, ta ain agradecituric gue!dituzé Jangoicoai ta Sanduai, ezi ya etzé iduri lengoa, baicic guizón bat berria. Cenbat alaco eguinzué Sandugonec? Ala cé propi qui Jangoicoaren gizona: ala eguinzué bera ain Sandu glorioso: ala beraren medios eguiñcitue Jangoicoai dagozquieron prodigio miragarriac. Ala bete du famas munduan, ta glorias ceruan: eta beti dago mostratzen, bere adisquide andia daucala An, beraren atencios naituela eguin graciac devotoei, ta azquenean gracia guzien corona gloria eman. Amen.

Xabier'ko Frantzisko Deunari

Gora dezagun guztiok
Prantzisko Xabier Deuna.
Jainkoarentzat ainbat efi
Irabazi zuena.
Gurutze bat eskuetan
afturik, ibiltzen zan
siñismena zabalduaZ
fedegaben artean.
Napafrak oyu biotzez:
gora Prantzisko Xabier.

Aguñ, gure Zaintzale
Ospetsu garailari,
Gogoen gaizkatzale,
Goitaf Misiolari,
Siñestegaben Artzai, maitasun eredu,
Zuri, Napañ guzien
Ospetsuen oferi
Gurtzen zaitzu ta auzpestzen
Abeñia maiteki
Ta zure deuntasuna apal goresten du.

Luf ontan den onena
Eskaintzen dizu zuri,

Bere oyanen itzal
 Mendien eluñ zuri,
 Gure ibañen eguzki ta ureñ mur-mur ofsa;
 Emakume guzien
 Siñespen iraunkoña
 Eta gizon guzien
 Zintzotasun jatofa.
 Ta bere auñ guzien lenbiziko otoitza.

Zure asaben aintzak
 Utzi alde batera
 Ta anai biña zoaizi
 Basa gizon arera
 Kristoren Gurutzea dezula zaingarri;
 Ta an sutsu, gogo-zale.
 Lanean diarduzu
 Ta gogoak miñaka
 Zeruratzan dituzu
 Guzientzat zerala argi ta aufendari.

Ofegatik da orain
 Andia zure izena
 Zugandik du Nabafak
 Aipamen andiena,
 Zugatik da lufeán agitz ezaguna:
 Noizpait izan dituen
 Zaldun ta gudariak
 Ezture ura goratu
 Ez efege andiaik
 Zuk zure Siñespen ta Gurutzeaz aña.

Zu gure menditako
 Lore usai gozoduna,
 An uñun ainbat biotz
 Gozarazi duzuna
 Ta miñik gañatenak zure uñenaz poztu,
 Bein argia uraizean
 Egun ilun batean
 Bakañik an uñungo
 Iñisaso-baztefearan
 Iñtzeria joan ziñian alai, zoriontsu.

Entzun! zer da itsasoak
 Dakargun aiotsori?
 Xabieñ il-zorian
 Mintzo zayo Kristori,
 Euskeraz, gure Euskeraz ari zayo izketan:
 Entzun....! ta ark azken itza
 Igoñtzen duenean
 Dagiogun otoitz au
 Napañ orok batean:
 «Xabieñ, zu bezela egizu il gaitean.»

Orain gure ikurdiiko
 Kate burnizkoetan,
 Guri iñork ezin kendu
 Dizkigun orientan
 Ipiñi beñf degu Deunaren izanitza:
 Ta ori ospatzeko
 Zof diogun bezala

Gurutze-besoetan
Birjosi dezatela
Gure Efiko andreak beraren bitzitza.

Ola izango litzake
Beti gure Ikuñdia
Abefi guziaren
Auñendari ta argia
Eta zu zaitugula, Xabief, aufetik
Zure efi biotzeko
Napar'efi laztana
Zuzen bai elduko da
Goiko Jaunarengana
Zuk lendik erakutsi diozun bidetik.

CC P.e

